



EUSKO LEGEBILTZARREKO OSOKO BILKUREN ARETOKO AURKEZPEN-PANTAILEN ETA KAMEREN HORNIKUNTZARAKO ETA INSTALAZIORAKO LIZITAZIO-PROZEDURA IREKIARI DAGOZKION KLAUSULA TEKNIKOEN AGIRIA

SARRERA

Botazioen emaitzen aurkezpen-panelen ordez, tamaina handiko bi pantaila jarri nahi ditu Eusko Legebiltzarrak. Kontuan hartuko diren pantailen gutxieneko neurria 103" da. Palkoaren frisoan, lehendakaritzaren mahaiaren aurrean, kokatutako 65"-ko beste pantaila batek osatuko ditu bi pantaila horiek, bertaratutako guztiek proiektioekiko ikuspegi zuzena izan dezaten.

Halaber, egun dauden kamera-kopurua handitzea planteatzen du, pantailen inguruetan bi kamera-konpaktu berri kokatuz. Bideo-ekoizpena aberastuko duten hainbat hartze ahalbidetuko dituzte kamera horiek.

Proposatutako aldaketek sistemaren zati baten berriztatuko dela erakusten dute. Egun dagoen DCN konferentzia-sistema ordezkatuko da datozen urteetan. Egiten diren aurkezpenetarako kudeaketa-programak, merkatuan egun indarrean dauden DCN-NG bertsioekin bateragarriak izango dira.

Bilkuran barrena ekoizitako bideoa erakutsiko dute pantailek, eta botazioen emaitzak eta oinarri hauetan zehazten diren datuak ager daitezen beharrezkoak diren konmutazioak egingo dituzte.

Bozketa hasieran, bozketa egiten den bitartean eta bozketa ondoren denbora zehatz batean, panel geografiko bat eta gutxienez egun erakusten diren datuak erakutsiko dituen emaitzen zerrenda agertuko dira. Egun gertatzen den moduan, bozketa-prozesua gauzatzen den bitartean, bozketak aurrera nola egiten duen ikusiko da, eta pantaila berriek boto-gehitze berriak jasoko dituzte. Lehendakaritzak bozketak abiatu orduko automatikoki abiatuko da sekuentzia.





AURKEZPEN-SISTEMAREN ZEHAZTAPENAK

Aurkeztu beharreko proiektuak instalazioaren alderdi guztiak kontuan hartuko ditu. Zerbitzu guztiak dituela, "giltza eskuan", funtzionamenduan entregatuko da; ordenagailu guztien software-a (kontrol-postua, erlojuen sorkuntza, botazioen emaitza, lehendakaritza-postua, tresneria erredundanteak, eta abar) araztuta eta edozein motako erremate guztiak amaituta barne.

Pantailak finkatzeko eta behin betiko finkapenerako beharrezkoak diren errementari-lanak eta -hornikuntzak barne hartuko ditu. Dekorazio- eta itxiera-aroztegia lehiaketa honetatik kanpo geratuko dira.

Nahasgailura sarrerek eta irteerek SDI formatua izango dute.

Kommutazio guztiak RGBHV formatuan egingo dira, pantailak ahalik eta bereizmen handiena izan dezan.

Instalaturako Bosch DCN sistemaren datuak irakurriko ditu instalazioak eta DCN sistemaren gaineko komandoak saihestuko ditu.

Kanpoko 4 bideo-datu sarrera-gune izango dira pantailetan proiektatzeko (lehendakaritza-postuan, 6. zenbakidun eserlekuan, atrilean eta operadore-postuan kokatuko dira).

Hornikuntza osoa 19"-ko altzairu normalizatueta instalatuko da, eta monitoreak, teklatuak eta gainerako agente-elementuak prozesadoreena ez den beste areto batean egongo dira (6 metroko distantzia gutxi gorabehera).

Instalazioaren garrantzia kontuan hartuta, derrigorrez erredundantea izango den sistema konfiguratu da, ahal bada erabilgarritasun handikoa. Tresnetako baten matxura gertatuko balitz, bizkor ezar daitekeen (gehienez 15 minutu) baliabide alternatibo bat egongo da beti.

Disko nagusi bakoitzak berdin-berdina den disko batean irudi-kopia bat izango du ordenagailuan bertan.

Prozesuan esku hartzen duen seinalea sortzen duten ordenagailu edota gailu guztiek, iturriaren egoera ikustea ahalbidetuko duen pantaila izango dute kontrol-kabinan.

Proiektua irekia da eta lehiakide bakoitzak bere ekipamendua aurkeztu ahal izango du. Eransten den zerrendaren asmoa ez da beharrezkoa den guztiaren zerrenda osoa izatea, baina xede duen kalitatearen ildo zehazten du. Behar bezala baloratu eta kontuan hartu dadin, eskaintza bakoitza eskemen bidez argi eta garbi azaldu, zehaztu eta dokumentatu behar da. Instalazioaren erreferentziako ekipamendu nuklearrak, gutxienez, erantsitako zerrendaren antzeko ezaugarriak izango ditu.

Beraz, kasu bakoitzean proposatzen den instalazioa konfiguratu ahal izateko beharrezkoak diren elementu, marka, mota eta modelo guztiak zehaztu behar dira.



	BISTARATZEA
2	Plasma edo LCD pantaila, gutxienez 103" tamaina duena. Panasonic TH-103PF10EK modelo edo antzekoa.
1	65"-ko plasma edo LCD pantaila. Panasonic TH-65PF11EK modelo edo antzekoa.
3	Osoko Bilkuren aretoan muntatzeko euskarria eta egokitzea.
1	Seinaleak ahalik eta kalitate onenarekin transmititu ahal izateko kable-multzoa (eskaintzan zehaztu beharrekoa)
	SEINALEEN KONTROLA ETA KUDEAKETA
1	Banda zabaleko matrizea, 600 Mhz-ko RGB seinaleetarako, Extron CrossPoint Ultra 1616H motakoa edo antzekoa.
1	Lau sarrerako irudi-prozesadore grafikoa, 450 Mhz-ko RGBrako, Extron MGP 464 motakoa edo antzekoa.
Bestelakoak	RGBHV seinaleen banaketa-anplifikadoreak, Extron DA2 RGBHV/DA4RGHV motakoak edo antzekoak.
Bestelakoak	Bideo eta RGB eskalatzailak. RGB, HDTV eta bideo seinaleen eskalatzailak, Extron DVS 304 D. motakoak edo antzeko produktuak.
Bestelakoak	17"-ko bideo- eta datu-monitoreak, 16/9 formatuan, 19"-ko rack-erako, Albiral170RK01MFA16 motakoak edo antzekoak.
Bestelakoak	Proiektuaren arabera beharrezkoak izan daitezkeen gainontzeko elementuak.
	BOZKETEN AUTOMATIZAZIO- ETA SOFTWARE-SISTEMA
2	17"-ko TFT-LCD ukimen-monitorea lehendakaritza- eta operadore-postuetarako, LG L1730 SF motakoa edo antzekoa.
Bestelakoak	Beharrezkoak diren prestazioen arabera, konfigurazio eguneratua duen ordenagailu pertsonala.
Bestelakoak	Ondorengo funtzionamendu-deskribapenen arabera berariazko programazioak dituen erabiltzaile-interfazea.
Bestelakoak	BOSCH DCN-rako software-a, DCN sistemaren modulu nagusitik beharrezko informazioa atera ahal izateko berariazko programazioak dituen.
	AZPIEGITURAK ETA INSTALAZIOA
1	Kanalizazio, kableatze, konexio, errotulazio eta abarren hornikuntza eta eraikitzea.
Bestelakoak	Altueran 42 U. dituen 19"-ko Rack armairua, kontroleko elektronika kokatzeko; euskarri-erretiluak, elikadurako konexio-blokeak eta beharrezko elementu guztiak barne izango ditu.
1	Instalazioa, konexioa, konfigurazioa eta probak. (Bi fasetan egin beharrekoak: lehen fasean, emaitzak behin-behineko pantailen gainean aurkeztuko dira; araztu ondoren eta jabearen gogobetetzearen arabera, bigarren fasean, pantaila handiak instalatzea eta proiektua behin betiko ezartzea ahalbidetuko da)
1	Instalatutako ekipamendu osoaren dokumentazio teknikoa eta eskuliburuak, software-aren segurtasun-kopiak, eta abar.
1	Tamaina handiko pantailen instalazioa. Ganberako Mantenimendu-Zerbitzuaren jarraibideen arabera egingo da.



POSTU OPERATIBOEN DESKRIBAPENA

Bistaratzeko pantailak kudeatzeko beharrezkoak diren elementu guztien horniketaz arduratuko da instalazio hau. Ondoren, instalatu beharreko kamera berriei dagozkien bigarren ataleko alderdiak zehazten dira.

1.- LEHENDAKARITZA-POSTUA

Bozketen, mikroen, eta abarren kudeaketa egiteko, lehendakaritza-postuak egungo DCN aginteak mantenduko ditu, baina aldi berean, legebiltzarreko bilkuraren gaineko gainerako kontrolak kontzentratuko dituen ukimen-pantaila izango du. Formatu panoramikoko 17" edo 19"-ko pantaila honek, zehazten diren funtzio desberdinetara bideratutako lau sektore izango ditu. Erantsita doan grafikoak gutxi gorabeherako irudia eskaintzen du.



A sektorea (goiko ezkerreko aldea)

A sektorea	

Bideoa eta datuak ikusteko gunea. Gune honetan, sistemak dituen pantaila desberdinak (5) txandakatuko dira, modu automatikoan edo eskuzko moduan:



- 1.- Errealizazioa. Bilkuran sortutako bideo-seinalea.
- 2.- Kanpoko PC-a. Aretoan proiektatu asmo den kanpoko seinalea; esaterako, Power Point bat.
- 3.- Kanpoko bideoa. Aretoan proiektatu asmo den bideoaren kanpoko seinalea; esaterako, iturritzat DVD bat duen aurkezpena.
- 4.- Bozketen bitartean eta ondorengo denbora tarte batean, geografia eta zenbakizko panela.
- 5.- Bertaratzearen inguruko geografia eta zenbakizko panela (sartutako txartelak).

Kanpoko iturriak proiektatzeko kasuan, "aldez aurretiko monitorearen" funtzionamendua du.

B sektorea (beheko ezkerreko aldea)

B sektorea	

Beheko aldean, honako funtzio hauek betetzeko zortzi sakagailu izango ditu:

- 1.- Txirrina
- 2.- Atrila
- 3.- Mezuak
- 4.- Errealizazioa
- 5.- Kanpoko PC-a
- 6.- Sarraileen kontrola
- 7.- Bertaratzea
- 8.- Hizkuntza
- 9.- Kanpoko bideoa
- 10.- Proiektatu

Azalpena:

Txirrina (1)

Bozketara deitu ahal izateko, lehendakaritzak "Txirrina" sakagailua du eskuragarri. Botoi hau sakatzerakoan, errele bat aktibatuko da eta "Txirrina" botoia aktibatuta agertuko da bost segundoz, sakatze horrek denbora hori irauten duen txirrina aktibatzen baitu.

Atrila (2)

Atrilaren alboan kokatuta dagoen jasogailua aktibatuko du, jasotzea eta jaitziera egin ahal izateko, ibiltartearen bukaeren informazioaren arabera.

Mezuak (3)

Operadorearekin mezularitza-sistema eskuragarri izango du lehendakaritzak. Sistema honetara sartu ahal izateko, "Mezuak" tekla sakatu beharko du. Gutxienez aurrez grabatutako bost mezu erabilgarri dituen leihoa irekiko da.



Lehendakaritzak aurrez grabatutako mezu bat igorriko dio operadoreari, nahi duen mezua aukeratuz eta jarraian "Operadoreari bidali" botoia sakatuz.

"Baliogabetu" botoiak teklatura itxiko du, mezua bidali edo grabatu gabe.

Errealizazioa (4), Kanpoko PC-a (5), Kanpoko bideoa (9) eta Proiektatu (10)

Bere pantailako goiko ezkerreko ertzean, lehendakaritzak VGA bihurtutako hiru bideo-sarreraren artean (errealizazioa, kanpoko bideoa eta kanpoko PC-a) bistaratzea aukera dezake. Dagokion botoia sakatu orduko, aukeratutako bistaratzea agertuko da. "Kanpoko bideoa" eta "Kanpoko PC-a" izendapenak pantailatan proiektatzeko kanpoko iturriei dagozkie. Behin lehendakaritzaren ordenagailuan irudia ikusita, "proiektatu" tekla sakatuta, irudia aretoko pantailetara bidaltzen da. Bozketa bat hasten denean, automatikoki bozketaren emaitzak bistaratzen dituen sarreran konmutatuko da. Bistaratzeko-eremuaren bereizmena 1024x768koa izango da.

Atal honi dagozkion aginteak, operadoreak dituen beste batzuekin erredundanteak izango dira.

Bertaratzea (7)

Botoia sakatuta mantentzen den bitartean, bistaratze-eremuan grafiko bat agertuko da. Bertan, beste kolore batez, gaitutako bertaratze-txartela duten eserlekuei dagozkien sinboloak agertuko dira. Dagokion zenbaki-oharrarekin osatuko da.

Hizkuntza (8)

Botoi hau sakatzerakoan, paneletako testuak Erkidegoan ofizialak diren bi hizkuntzetan txandakatuko dira.

C sektorea (beheko eskuineko aldea)

	C Sek.

Gune honetan bi pantaila daude; geldirik dagoenean aurreko bozketaren emaitzak erakusten ditu. "Mezuak" botoia sakatzerakoan, dagokion menua agertzen da.

D sektorea (goiko eskuineko aldea)

	D Sek.

- Hitz egiteko denboraren kontrola

Goiko eskuineko aldean kokatuta dagoen hitz egiteko denboren kontrol-panela izango du lehendakaritzak. Tenporizadore baten edo biren kontrola aukeratu ahal izango du lehendakaritzak; azkenak Gobernuari egiten zaizkion galderetarako dira.



Tenporizadorearen eta pantailaren gaineko programazioaren erabilera intuiziozkoa eta erraza izango da. Gauzatu aurretik, proposamena onetsi dadin aurkeztu behar da. Tenporizadore honek atril gaineko pilotuak eta bistaratze-pantailen gaineko erreplika grafikoa zuzenduko ditu.

Hitz egiteko geratzen den denbora 60 segundo baino gehiago denean, tenporizadorea berdea izango da. Hitz egiteko geratzen den denbora 60 segundo edo gutxiago denean, tenporizadorea horia izango da. Hitz egiteko denbora agortu denean, tenporizadorea gorria izango da.

2.- HIZLARIAREN ATRILA

Hizlariaren atrileko pantailak soilik tenporizadore bat aukeratuta dagoenean erakutsiko du hitz egiteko denbora.

Pantailak hitz egiteko denbora erakutsiko du, eta pantailaren atzealdeak kolore desberdina izango du denboraren egoeraren arabera (berdea, horia eta gorria). Hitz egiteko geratzen den denbora 60 segundo baino gehiago denean, pantailaren atzealdeak kolore berdea izango du; 60 segundo baino gutxiago denean, kolore horia izango du, eta denbora agortu denean, kolore gorria izango du. Tenporizadorea geldirik dagoenean, pantailaren atzealdeak kolore grisa duela erakutsiko du denbora pantailak.

Tenporizadoreak beherantz kontatuko dute, zerora iritsi arte. Une horretatik aurrera, gorantz kontatuko dute.

Bi tenporizadore aukeratuta daudenean, pantaila kolore grisekoa izango da, denboraren berririk eman gabe.

Hiru erreleek kontrolatuko dituzte hitz egiteko denboraren semaforoaren argiak. Hitz egiteko geratzen den denbora 60 segundo baino gehiago denean, errele bat aktibatuta egongo da; hitz egiteko geratzen den denbora 60 segundo baino gutxiago denean eta Ora iritsi arte, bigarren errelea aktibatuta egongo da; eta hitz egiteko denbora agortuta dagoenean aktibatuko da hirugarren errelea. Inolako tenporizadorerik abian ez denean, hiru erreleak desaktibatuta egongo dira. Errele hauek tenporizadore baten edo bi tenporizadoreren moduan egongo dira aktibatuta.

3.- OPERADOREA

Egungo DCN sistemaren software-aren kontrolaz gain, operadoreak aplikazio erantsi bat izango du eta bertan, lehendakaritzak bidalitako mezuak jaso ahal izango ditu eta hitz egiteko denborak ikusiko ditu.

Lehendakaritzak bidalitako mezua ikusi ahal izateko leiho bat eta jasotako mezua ezabatu ahal izateko tekla bat izango ditu. Mezu bat jasotzerakoan, operadorea jakinaren gainean jartzeko soinu bat sortuko da.

Iturri desberdinak aretoko aurkezpen-pantailera bidaltzeko beharrezko aginteak izango ditu.

4.- ARETOKO MONITOREAK

Lehendakaritzaren eta operadorearen postuetatik zuzenduko dira hiru pantaila handiak. Beheko eskuineko ertzean kokatutako kolorezko marra baten gainean, atrilak erakutsitako kontagailu bera gainezarriko da. Interbentzioaren egoeraren arabera aldatuko da marraren kolorea, atrilerako zehaztu den moduan. Irudi korporatibo edo "euli"-ren baten aukera baztertu egiten da, "Izaro"-ren (bilkura aretoan dagoen erakundearen eskultura eta irudia) kokapenetik hurbilegi baitago.



BI KAMERA OSAGARRIEN ZEHAZTAPENAK

Instalazioak bigarren atala du, robotizatutako bi kamera hornitzean eta instalatzean oinarritzen dena. Kokapena kontuan hartuta, tamaina txikikoak izango dira. Simetrikoki ezarriko dira, zenbaki-markagailuen goi-erdialdeko gunearen erdian (erloju digitalen azpian). Kamera hauen irteera bideo konposatuko bi monitoreetara eta SDI nahasgailura bidaliko da. Hornitu beharreko ekipamenduak ezaugarri hauek berak edo hobeak izango ditu:

KAMERA OSAGARRIAK	
2	3 CCD's HAD IT 1/3" dituen HD xede anitzeko kamera, Pan/Tilt/Zoom mekanismoa duena. Gutxienez, F1.6. 6 lux-eko argiztapena. 12x zoom optikoa (digitala 48x-era arte). Bereizmen handiko hartzea. Kontrol urruna, RS-232C eta RS-422-aren bidez. SONY BRC-H700P marka edo antzekoa.
2	BRC-H700P, BRU-H700P, HDC-X310 eta HFU-X31-entzako SD irteera-plaka. SDI irteeraz gain, bideo konposatu eta RGB/YPbPr 9 pineko D-sub monitorearen irteera analogikoaren irteera barne hartzen du. SONY HFBK-SD1 marka edo antzekoa.
1	SONY kamera-konpakturako urruneko kontrol-panela. RS-232C/RS-422 kontrola. SONY RM-BR300 marka edo antzekoa.
2	LCD 8,4" monitorea, altueran 3ru-ko 19"-ko rack-ean, bideo konposatu eta SDI Albiral 084RK02VFA/SDI erreferentziarako sarrera duena edo antzekoa.
1	Berariazko euskarriak, instalazioa, konexioa, konfigurazioa eta proben fabrikazioa, dagoen instalazioan abian jarri eta integratu arte. Dokumentazio teknikoa eta eskuliburuak.

A.- GOGOETAK, BALDINTZAK ETA EPEAK

1. Entregatzeko eta instalatzeko gehienezko epearen konpromisoa jaso behar dute eskaintzek; epea ez da 10 aste baino luzeagoa izango.
- 2.- Egun dauden panelak kendu aurretik, behin-behineko pantailen gainean, ekipamendua instalatuko da bilkuren aretoari erantsitako aretoetan, proba egin eta funtzionamendua onar dadin. Alderdi kritikoenetako probak gainditu ostean, bilkuren aretoan ezarri ahal izango dira.
3. Lotearen barne eskaintako elementuei dagozkien aseguruak, garraioa, deskarga eta muntaia egongo dira, eta baita ordezkatu beharreko sistema kentzea ere.
4. Eskaintako materialari buruzko nahikoa informazio tekniko gehituko dute eskaintza egiten dutenek, materiala modu egokian ebaluatzea ahalbidetuko duena. Baldintza hau ez betetzea eskaintza kontuan ez hartzeko nahikoa arrazoi izan daiteke.
5. Dena dela, lehiakideek bilkuren aretoari bisita egiteko aukera izango dute, zalantzak argitu eta egungo instalazioa ezagutu ahal izateko. Horretarako, Ganberako Mantenimendu-Zerbitzuarekin harremanetan jarri beharko dira, honek azalpenak emateko bilerak antolatuko ditu interesdunekin.
- 6.- Lehiaketa burutu ahal izateko eskaintza egiten duenak esku artean dituen giza baliabide teknikoaren deskribapen zehatza halaberrez jaso beharko dute eskaintzek, eta parte hartuko duen talde teknikoa zehaztu beharko dute: maila tekniko bakoitzeko langileak, bakoitzaren lan-esperientzia, ohiko bulegoaren kokapen geografikoa eta proiektuarekiko dedikazioa. Laguntza tekniko gehigarriaren berri ere emango da, eta aipatutako talde teknikoak hura kontuan hartzeko aukera izango du. Antzeko proiektuen erreferentziak jaso beharko dituzte eskaintzek.



7.- Eskaintza bakoitzaren baldintza teknikoak zehazteko eta lehiaketa honen helburua modu hobean betetzea bermatzeko, oinarri hauek proposatzen dituztenekin osagarriak diren aukerak aurkeztu ahal izango ditu lizitatuak. Eusko Legebiltzarrak aukera horiek instalazioa modu egokian konfiguratzeko, oinarriko eskaintzaren osagaiak antzekoekin ordezkatzeko edo lehiaketa honetan hasiera batean eskatutakoak baino prestazio handiagoak dituzten tresnak jartzeko erabili ahal izango ditu, betiere lehiaketa honetarako ezarritako gehienezko prezioaren barruan.

B.- BERMEA

Eskaintzako instalazioak derrigorrez lau urteko bermea izango du, eta lehiaketa honetan eskaintzako tresna eta programen "in situ" mantenimendua, Eusko Legebiltzarreko egoitzan bertan, barne izango du. Matxuraren berri jaso denetik, arreta zerbitzuak konponketarako zortzi ordu baino gehiagoko tartea ez dela pasatuko bermatu beharko du, 8x5 modalitatean (eguneko 8 ordu, Euskal Autonomia Erkidegoko lanegunetan). Hori guztia espresuki azalduko da eskaintzan.

Eskaintzek, derrigorrez, zerbitzu honen helburu diren lau urteetan barrena, "in situ" mantenimendu-zerbitzurako euskarri izango diren baliabide tekniko, giza baliabide, antolaketa-baliabide eta bestelakoen deskribapen zehatza jaso beharko dute. Mantenimenduz arduratuko den enpresa ere zehaztuko da.

Eskatutako interbentzio bakoitzetik dagokion lanaren atala beteko da, eta bertan, eskaintzako zerbitzua, gertaeraren arrazoia eta instalatutako materialak edo ordezkariak zehaztuko dira.

Arreta teknikoaren langileengandik eratorritako gastu guztiak, joan-etorriak eta dietak, edo garraioa eta aseguruak, nola erabili beharrezko materialak, tresneria, neurri-ekipoak, dokumentazioa eta mantenimendu eta konponketarako stock-a, nola hirugarren pertsonen euskarria edo jarduna (fabrikatzailea edo ordezkaria), esleipendunaren esku egongo dira eta eskaintza ekonomikoaren barne egongo dira.

Instalazioaren behin betiko harrera-aktaren datatik aurrera hasiko da bermearen epea kontatzen.

C.- BESTEAK

Behin eskaintzak zabaldua, onartu diren eskaintzen enpresei edozein motako erakustaldi edo froga eskatzeko eskubidea izango du Eusko Legebiltzarrak, haien eskaintzetan azaldukotako egiaztatu ahal izateko.

Behin berme-epea pasatuta eta eskaintzako proiektua ondo gauzatu dela egiaztatuta, jarritako fidantza itzuli egingo da.